



Euskararen egoera Lasarte-Orian. Laburpena

Hemen jasotako datuak "Euskararen egoera Lasarte-Orian" liburuan¹ oinarritzen dira. Hura oinarritzat hartuz, zenbait informazio zegoen moduan ekarri da eta beste zenbait, berriz, eguneratu egin da, bereziki ondoren egindako erroldetatik eta euskara-zerbitzuak zuzenean jasotako datuak iturburutzat erabiliz.

Atal hauetako informazioa ekarri da:

- Zertzelada historikoak
- Lehen hizkuntza
- Hizkuntza gaitasuna
- Irakaskuntza
- Euskararen kaleko erabilera
- Etxeko hizkuntza
- Ondorio nagusiak

2019

¹ Euskararen egoera Lasarte-Orian. XX. Mendearen amaierako datu soziolinguistikoen bilduma. Lasarte-Oriako Udala (2001)

Zertzelada historikoak

1879:

"De las 176.297 almas que poblaban Gipuzkoa al realizar el acensamiento, creo bastante exacto calcular, por los datos adquiridos, que las 170.000 hablaban el vascuence y entre ellas las 140.000 hacían uso exclusivo de esta lengua en sus diarias relaciones."

125 urte ez dira L. Velascok eginiko azterketak azaltzen duen errealitatea (hizkuntzazkoa) zuela Gipuzkoak, bai eta –esan dezkegu, oker handirik egiteko arriskurik gabe– Lasarte-Oriak ere. Zenbakien zehaztasunak garrantzi berezirik ez badu ere, bide ematen digu esateko Lasarte-Oria orain mende bat herri euskalduna zela (%96) eta euskaraz bizi zela. Bereziki azpimarratzekoa da elebakarren ehuneko horrek adierazten duena; hau da, herriko zeregin gehienak, hizkuntzazko funtzio gehienak, euskaraz egiten zirela.

1845-1910:

XIX. mendean, Lasarte-Oriaren ekonomia lehenengo sektorean oinarritzen zen (nekazaritzan eta abeltzaintzan). Orduz geroztik, bigarren sektorearen hazkundera izan da hizkuntzazko egoeraren aldaketan eraginik handiena izan duen faktorea. Sektore hori XIX. mendearen bukaeran hasi zen indarra hartzen –Brunet lantegia 1845. urtearen inguruan sortu zen, eta hastapeneko 150 langileak 450 bilakatu ziren mende hasierarako–. Horrek iragartzen digu Lasarte-Oriako demografiak jasan dituen hazkunde bortitzetako bat, lehena: 1860. urtean 583 biztanle izatetik 1910ean 1.872 izatera pasatu zen; hots, mende-erdian, biztanle-kopurua hirukoiztu egin zen.

1910-1936-1960:

"...XX. mendean, salbuespen gutxi batzuk aparte, euskararen erabilera publikoa mugatu edo debekatzeko legeak eman ziren lehenengo hiru hamarkadetan: zentzu honetan, Estatuko araurik gogorrenetako bat 1902an aldarrikatu zen, kristau-dotrina irakasteen gaztelania ezik besterik erabiltzea debekatzu..." .

*"Hizkuntz zapalkuntza ez zen frankismoarekin hasi; hala ere, aspaldidanikoa zena, urte haietan inolako lotsa politikorik gabe azken muturreraino eraman nahi izan zen. Bizitza publikoan ezezik, pribatuan ere bortizki eraso zitzaion euskarari: kontrolagarri ziren hizkuntzaren azalpen sozialak kupidarik gabe ito ziren (jaiak, argitalpenak, gizarteko erabilera, etab.). Euskaltzalegoari ahotsa ukatu egin zitzaion, eta sakabanatu egin zuten, honela talde sozial horren erresistentzia desegiteko. Hizkuntzarekiko programa politiko bakarra geratu zen zutik: faxismoarena. Ehundaka testu historiko dira berorren lekuko."*¹


1960-1975:

Bi mila biztanle inguruko kopurua 1910etik 1940. urtera arte mantendu zen, eta, 1950-60 hamarkadatik 1975. urtera arte, industrializazioa zela eta, Lasarte-Oriako herriak hazkunde ez-kontrolatu erraldoia jasan zuen. Horrela, 1960. urtean 3.944 bizilagun izatetik 1970. urtean 12.449 izatera iragan zen (10 urtean, biztanle-kopurua hirukoiztu egin zen), eta 1976. urtean 17.271 izatera (16 urtean, biztanle-kopurua laukoiztu egin zen).

¹ INTXAUSTI, Joseba.(1990). *Euskara euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

Hizkera soziolinguistikoan, eta laburbiltzarren, zapalkuntza politikoek (XIX. mendearen bukaerakoak, XX. mendearen hasierakoak, gerra zibilak eta 40 urteko erregimen frankistak) euskara minorizatu egin zuten (erabili ahal izateko funtzioak –administrazioa, irakaskuntza, lana...– kendu egin zizkieten) eta sozioekonomiak gertarazitako immigrazio ez-kontrolatuek euskara hizkuntza minoritario bihurtu zuten Lasarte-Orian (euskal hiztunak, kopuruz, gutxiengo izatera pasatu ziren).

Horren frogagarri, 1973. urtean, aipatu ditugun faktore batzuk bete-betean ari zirenean, Pedro de Yrizarrek Lasarte-Oriari buruz emandako datuak: 11.164 biztanle, 2.175 euskaldun (%19,5).



1966-2006:

Baina, urte bertsuetan –60ko eta 70eko hamarkadetan–, eta, batez ere, ondorengoetan –80ko eta 90eko hamarkadetan–, gauza asko aldatu ziren. Batetik, sozioekonomia aldatu egin zen: 2. sektorea indarra galtzen hasi zen –oso nabarmen gure herrian– eta 3. sektorea hasi zen indartzen, eta biztanleria ere estabilizatu egin zen 18.000 biztanle inguruan). Bestetik, erregimen politikoa ere aldatu egin zen.

Euskarari dagokionez ere, ordezkatzeko prozesu horrek, urteetan zehar izan duen erresistentziaz gain, baditu, azken urteetan, gainjartzen zaizkion berreskuratzeko ahaleginak ere. Ahalegin horien abiapuntua, Lasarte-Orian, 1966. urtean jarri dugu, Landaberri ikastola sortu zeneko urtean.²

Geroztik, demokrazia-aldiak ekarritako oinarriak daude alde batetik (Euskararen Legea, hezkuntzako irakastereduak, administrazioan euskara normalizatzeko arauak...), eta berariaz Lasarte-Oriako udalerrian egin diren hainbat ekimen bestetik (gau-eskolak, AEK euskaltea, Euskara Taldea, ikastetxe publikoetako eredu-aldaketak, Udalaren Euskaltea, Udaleko Euskara Batzordea, Ttakun Kultur Elkarte...). Normalizatzeko prozesu horrek ere izan du ondorioa euskaldunen ehunekoetan: 1981eko erroldan, euskaldunak %23,9 ziren, 1986koan %28,1, 1991koan %32,5, 1996koan %35,3, 2001ekoan %36,8 eta 2006koan %39,4, 2011koan %40 eta 2016koan %45,4.

Lehen hizkuntza


Iturria: Eustat (>2 urte)	Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat		Biztanleak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kop.	%	
1986	4.553	24,5	698	3,8	13.149	70,7	189	1,0	18.589
1991	4.653	25,7	661	3,6	12.558	69,3	259	1,4	18.131
1996	4.163	23,3	956	5,4	12.506	70,0	236	1,3	17.861
2001	3.939	22,9	1.018	5,9	11.980	69,7	258	1,5	17.195
2006	3.858	22,1	1.104	6,3	12.138	69,6	332	1,9	17.432
2011	3.830	21,0	1.259	6,9	12.534	68,8	585	3,2	18.208
2016	3.773	20,4	1.405	7,6	12.568	67,9	753	4,1	18.499
Aldea (2016-1981)	-780	-4,1	+707	+3,8	-581	-2,8	+564	+3,1	-90

² "Armairuaren zirrikitutik. Lasarte-Oriako euskalgintza 1966-2016" DVDa. Lasarte-Oriako Udala (2016)

Euskara lehen hizkuntza (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) dutenen ehunekoak ez du ia aldaketarik izan 1986 (%28,3) eta 2016 artean (%28,7). Lehen hizkuntzaren ehunekoak ez dira ia mugitu hogeita hamar urtean. Ehuneko hori hizkuntzaren egoeraren adierazgarri oso sendoa eta egonkorra denez gero, aldaketak belaunaldi batetik bestera baizik ezin dira somatzen hasi.

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa gutxitzen ari da eta oso kezkarria da. Ez dago aztertuta jaisiera hori zenbatean dagokion demografiaren eraginari eta zenbatean euskaraz badakiten gurasoen arteko hizkuntza-ohituren ondorio den, edozein kasutan, kezkatzeko puntua da, izan ere hizkuntzaren bizi-indarraren adierazlerik indartsuena da eta belaunaldi berrien gaitasun erlatiboa gehien baldintzatuko duen faktoreetako bat. Bestalde, gehitzen ari diren ehunekoak euskara eta gaztelania, biak, dituztenen eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenen ehunekoak dira.

Eta belaunaldi berrietan?



Baikorra izan da oso 1986 eta 2001 artean, 5-9 urte zituztenen artean, euskara lehen hizkuntza izan dutenen bilakaerak (euskarak 20 puntu egin du gora 15 urte horretan). Ordutik 2016ra gertatzen ari dena, berriz, guztiz alderantzizkoa da eta alarmak pizteko adierazlea izan daiteke. Edozein kasutan, 2001eko erroldatik aurrera, datuak biltzeko modua ere aldatu egin zen eta ez dakigu horrek ere eragina izan ote duen. Gaiak azterketa sakonagoa merezi du.


Hizkuntzazko gaitasuna

Hizkuntzazko gaitasunaren bilakaera 1981etik 2016ra

Iturria: HPS (>5urte)	Euskaldunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Biztanleak (> 2 urte)
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
1981	3.986	23,9	2.001	12,0	10.696	64,1	16.683
1986	4.896	28,1	1.985	11,4	10.535	60,5	17.416
1991	5.646	32,5	2.455	14,1	9.253	53,3	17.354
1996	6.058	35,3	2.269	13,2	8.836	51,5	17.163
2001	6.052	36,8	3.102	18,9	7.284	44,3	16.438
2006	6.659	39,4	4.110	24,3	6.146	36,3	16.915
2011	7.092	40,0	4.788	27,0	5.834	33,0	17.714
2016	8.188	45,4	3.290	18,2	6.569	36,4	18.047
Aldea (2016-1981)	+ 4.202	+ 21,5	+ 1.289	+ 6,2	-4.127	-27,7	1.364


Hogeita hamabost urteko tarte horretan, euskaldunek gora egin dute kopuruetan eta ehunekoetan (+%21,5); elebidun hartzaileek ere bai (+%6,2); eta erdaldun elebakarrek, berriz, behera egin dute nabarmen (-%27,7). Beraz, Lasarte-Orian, 2016an 1981ean baino 4.202 euskaldun gehiago ziren.

Hizkuntzazko gaitasuna, 2016 (Eustat: >5 urte)



Grafikoan argi ikusten dira hizkuntzazko gaitasunak lasarteraren adinaren arabera dituen ezberdintasunak. Izan ere, 60 urtetik gorakoen artean, *euskaldunen* ehunekoa %20-30 inguruan dago. Hortik behera, berriz, *elebidun hartzaileen* ehunekoak gora egiten du nabarmen 35 urte artekoetaraino eta hortik behera, berriz, *Euskaldunen* ehunekoa gora egiten duena nabarmen, **20 urtez azpikoen artean erdal elebakarrik ia ez agertzeraino eta ondorioz guztiek euskaraz behintzat ulertu egiten dute.**

Edozein kasutan, hurrengo adin-piramidearen grafikoan ikus daitekeen modura, belaunladiak euskaldunenak dira demografikoki pisu gutxien dutenak.




Euskaldunen osaera 2016

Aurreko ataletan esan dugun legez, ordea, euskaldunen ehunekoak izan duen gorakada adin-tarterik gazteenetan gertatu da, alde batetik, eta lehen hizkuntza euskara izan gabe eskola edo euskaltegi bidez euskaldundutako pertsoneri dagokie, bestetik.

Prozesu horren ondorioa da euskaldunak gero eta gehiago izatea, alde batetik, eta euskaldunen barruko osaeran euskaldun zaharren ehunekoa gero eta txikiagoa izatea, bestetik. Beraz, pertsona bakoitzaren abiapuntuko euskarazko gaitasuna (lehen hizkuntza) eta galdetutako momentuko gaitasuna (hizkuntzako gaitasuna) gurutzatzen baditugu, hiru tipologia ezberdin ditugu euskaldunen multzoaren barruan:

- *Euskaldun zaharra:* lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz “ondo” ulertzen eta hitz egiten duena.
- *Jatorrizko elebiduna:* lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izanik, euskaraz “ondo” ulertzen eta hitz egiten duena.
- *Euskaldun berria:* lehen hizkuntza euskara ez beste hizkuntza bat izanik, euskaraz “ondo” ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.



Adineko euskaldunen artean ia guztiak *euskaldun zaharrak* diren bitartean, gaztetxo euskaldunen artean, *euskaldun zaharrak* eta *jatorrizko elebidunak* batuta, ez dira erdiak izatera iristen. Beste erdia *euskaldun berriak* dira. Batez ere irakaskuntzaren eraginez sortzen ari diren euskaldun berrien ondorioz, euskaldunen osuera asko aldatu da, 1986an euskaldun berriak %9 izatetik 2016an %42 izatera pasatu baitira eta euskaldunzaharrak, berriz, %82,8 izatetik %44 izatera iragan baitira hogeita hamar urteko tarte horretan.

Inguruarekiko konparazioa

Taulak adierazten digunez, Lasarte-Oriaren ingurua Lasarte-Oria baino euskaldunagoa da, bai inguruan dituen udalerriei erreparatuz gero, bai Gipuzkoako lurralde osoari begiratuz gero ere. Hala ere, Lasarte-Oriako eta Donostiako hizkuntzazko egoerak oso antzekoak dira, biztanleen hizkuntzazko gaitasunari so eginez gero; Donostian elebidun hartzaileen ehunekoa handixeagoa da eta erdaldun elebakarrena txikiagoa. Bestalde, Lasarte-Oriako euskaldunen ehunekoa Euskadiko Autonomia Erkidegokoa baino zerbait handiagoa da.

2016	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
	%	%	%
Andoain	56,3	17,7	26,0
Astigarraga	64,7	16,0	19,3
Donostia	46,0	19,7	34,3
Hernani	61,3	15,9	22,8
Urnieta	60,4	18,3	22,6
Usurbil	72,5	11,1	16,4
Gipuzkoa	57,4	15,9	26,7
EAE	42,2	18,5	39,3
Euskal Herria (>15 urte)	28,4	16,4	55,2
Lasarte-Oria	45,4	18,2	36,4

Irakaskuntza

Lasarte-Oriako ikastetxeetako datu guztiak bilduta, irakaskuntzako ikastereduek izan duten bilakaera ondorengo taulan dago jasoa:

Ikasturtea	Erroldatuak	Lasarte-Orian matrikulatuak		EREDUAK					
				A		B		D	
		IKASLEAK	%	IKASLEAK	%	IKASLEAK	%	IKASLEAK	%
1980-81	5.591	3.572	63,9	2.794	78,2	88	2,5	690	19,3
1985-86	5.458	3.943	72,2	2.707	68,7	554	14,1	690	17,5
1990-91	4.223	2.880	68,2	1.421	49,3	863	30,0	596	20,7
1995-96	3.070	2.144	69,8	549	25,6	926	43,2	669	31,2
2000-01	2.335	1.494	64,0	66	4,4	492	32,9	935	62,6
2005-06	2.777	1.463	52,7	59	4,0	339	23,2	1.065	72,8
2010-11	3.035	1.806	56,8	8	0,4	198	11,0	1.600	88,6
2015-16	3.214	2.048	63,7	0	0,0	105	5,1	1.943	94,9
2018-19	3.021	2.124	70,3	0	0,0	9	0,4	2.115	99,6

EUSKALTEGIAK

Herriko euskaltegietan ikasturte hasieran jasotako matrikulazio-datuen bilakaera ondorengo taulan daude laburbilduta:

IKASTURTEA	Udal Euskaltegia	AEK euskaltegia	Michelin	GUZTIRA
1988-1989	222	122	20	364
1993-1994	226	88	—	314
1998-1999	192	65	—	257
2003-2004	110	69	—	179
2008-2009	126	62	—	188
2013-2014	120	57	—	177
2018-2019	104	59		163

Euskararen kaleko erabilera

Lasarte-Oriako euskararen egoeraren berri izateko beste elementu bat da euskararen kaleko erabileraren neurketa. Neurketa hori kalean egin da, eta urtero baldintza bertsuak (kale beretan, egun beretan...) mantentzeko ahalegina egin da. Neurketa egiteko, herria 5 ibilbidetan banatu da, ibilbide bakoitza auzo bakoitzari dagokio, gutxi gorabehera, eta neurketa 5 egunetan egiten da urtero, egun bakoitzean bi orduz behatuz. Hauek dira urtez urte euskararen erabilerak izan dituen ehunekoak, guztira eta adin-talde bakoitzean.

Urte batetik bestera izan ohi diren aldaketa ustez handiegien irakurketa saihesteko, egindako neurketak lau urteka bildu ditugu eta horien batez bestekoa egin dugu, neurketen segidak duen norabidea sendotasun gehiagorekin irudikatzen laguntzeko.

Hogeita bederatziko urteetako neurtaldiak kontuan hartzen baldin baditugu, %13±3ko tartea behar da hamasei urteetako batez bestekoak bildu ahal izateko. **Azken hamar urteak** hartzen baldin baditugu, aldiz, %18±4ko tartean sartzen ditugu hamar urteak, aurtengoa salbu. **Azken seirak** hartuz gero, aldiz, %19±3ko tarte horretan sartzen ditugu bost (aurtengo %11, izan ezik).

OROKORRA	1990-1993	1994-1997	1998-2001	2002-2005	2006-2009	2010-2013	2014-2017	2018-
Euskaraz	11,9	11,7	15,9	15,3	22,8	21,3	18,4	11,2
Hamarkada	1990-1999		2000-2009			2010-		
Euskaraz	12,8		18,2			18,9		

Haurren erabilerari dagokionez, %21±4ko tartean sar ditzakegu azken hogeita bederatziko neurtaldietatik hamalau. Azken sei neurketatik lau, berriz, %25±5 tartean biltzen dira.

HAURRAK	1990-1993	1994-1997	1998-2001	2002-2005	2006-2009	2010-2013	2014-2017	2018
Euskaraz	18,8	17,4	24,8	24,7	34,7	33,8	27,6	15,1
Hamarkada	1990-1999		2000-2009			2010-		
Euskaraz	20,0		28,0			28,9		

Gazteen kasuan ere, hogeita bederatzi urteetako neurtaldietatik zazpi biltzen ditu **%13±2** tartea. Azken sei urteetako bost, aldiz, **%25 ± 5** tartean sartzen dira, aurtengoa barne.

GAZTEAK	1990-1993	1994-1997	1998-2001	2002-2005	2006-2009	2010-2013	2014-2017	2018
Euskaraz	7,9	8,5	13,9	17,4	35,4	29,8	30,8	23,2
Hamarkada	1990-1999		2000-2009			2010-		
Euskaraz	9,1		22,6			29,5		

Helduen kasuan, azken hogeita bederatzi urteetako neurtaldietatik hamabost biltzen ditu **%10±2** tartea. Azken sei urteetatik bost, ordea, **%16±3** tartean sartzen dira, aurtengoa salbu.

HELDUAK	1990-1993	1994-1997	1998-2001	2002-2005	2006-2009	2010-2013	2014-2017	2018
Euskaraz	10,6	9,3	12,4	13,2	18,1	17,6	16,9	9,4
Hamarkada	1990-1999		2000-2009			2010-		
Euskaraz	10,4		15,2			16,5		

Adinekoei dagokienez, azken hogeita bederatzi urteetako neurtaldietatik hamalau multzokatzeko, **%16 ± 4** tarte finkatu behar da. Azken sei urteak, ordea, **%11±2** tartean biltzen dira, aurtengoa (%8,7) barne kontsideratuz gero.

ADINEKOAK	1990-1993	1994-1997	1998-2001	2002-2005	2006-2009	2010-2013	2014-2017	2018
Euskaraz	15,2	15,1	14,9	10,3	15,6	12,9	11,2	8,7
Hamarkada	1990-1999		2000-2009			2010-		
Euskaraz	15,9		13,2			11,7		

Hala ere, beti esan ohi dugunari jarraituz, eta aurtengoa ikusita arrazoi gehiagoz, urte batetik besterako gora-beherei baino urteetako segida osoari begiratu behar diogu. Arrazoibide honi jarraituz, hurrengo urteetako neurketek adieraziko digute joera berri horiek finkatuko diren edo ez.

Etxeko erabilera

Etxeko hizkuntza etxean erabiltzen den hizkuntza da. Hemen jasotako datuak biztanleen udaleko erroldan daude oinarrituak. Zehazkiago, erroldak betetzerakoan “Zein hizkuntza erabiltzen duzu maizen zeure etxean?” galderari emandako erantzunetatik ateratako datuak dira.

Iturria: Eustat (>2 urte)	Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat		Biztanleak
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kop.	%	
1991	3.148	17,4	1.812	10,0	13.065	72,1	106	0,6	18.131
1996	2.810	15,7	2.002	11,2	12.963	72,6	86	0,5	17.861
2001	2.565	14,9	1.786	10,4	12.715	73,9	129	0,8	17.195
2006	2.367	13,6	1.912	11,0	12.897	74,0	256	1,5	17.432
2011	2.391	13,1	1.720	9,4	13.751	75,5	346	1,9	18.208
2016	2.694	14,6	2.475	13,4	12.820	69,3	510	2,8	18.499
Aldea (2016-1981)	-454	-2,8	+663	+3,4	-245	-2,8	+404	+2,2	-90

Taulak dioenez, lasartearren %28k dute euskara etxeko hizkuntza (%14,6k euskara soilik eta %13,4k gaztelaniarekin batera). Biztanle gehienek –%72,1ak, alegia– ez dute etxeko hizkuntza.

Adinaren arabera aztertuz gero, ordea, ikus daiteke ezen, 2016ko datuen arabera, adinak behera egin ahala, 20-24 urtetik behera, euskara gero eta gehiago erabiltzen dela etxean, bereziki datu interesgarriak izanik 5-9 urtekoen artean agertzen den gorakada.

Adin-tartea (2016)	5-9	10-14	15-19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	45-49	50-54	55-59	60-64	65-69	70-74	75-79	80-84	>=85
Euskara	25,0	18,5	17,7	19,5	16,4	13,9	13,6	13,3	12,3	13,5	11,1	9,9	9,7	9,9	12,3	14,7	15,6
Euskara eta gaztelania	30,0	27,3	22,2	16,7	13,4	12,4	12,7	10,5	12,0	10,2	9,0	7,2	7,3	5,6	7,0	11,2	9,1
Gaztelania	40,8	51,2	56,4	58,4	63,6	68,5	69,4	73,6	73,4	74,7	78,9	81,8	82,7	83,0	80,4	73,7	74,6
Besteren bat	4,2	3,0	3,8	5,4	6,6	5,1	4,4	2,7	2,3	1,6	1,0	1,0	0,3	1,5	0,2	0,4	0,8

Ondorio nagusiak

Ikuspegi historikoa

- Lasarte-Orian, euskara galera-prozesu batean murgilduta egon da; bereziki, XIX. mendearen erdialdetik 1975. urte aldera arte. Galera-prozesu horren eragile nagusiak soziopolitikoak (euskarak izandako jazarpena) eta sozioekonomikoak (immigrazio handia) izan dira.
- Galera-prozesu horren ondorioz, euskarak balioa galdu du (erabiltzeko eremuak galdu ditu: administrazioa, irakaskuntza, lan-arloa, komunikabideak...) eta, horren kausaz, hiztunak ere galdu ditu (bai kualitatiboki –euskaldun alfabetaturik ia ezin izan baita osatu urte horietan zehar–, bai kuantitaboki –familia euskaldunetan ere euskaraz hitz egiteari utzi zaiolako askotan, eta jatorriz euskara ez zekien kolektiboak, oro har, ez duelako euskara ikasi beharrik izan–).
- Beraz, galera-prozesuaren eraginez euskara egoera kaskarrean egon den unean, 1960-1975 urteen artean, euskara zekitenak asko gutxitu ziren (%20z azpitik izatera iritsi ziren), ez ziren euskaraz alfabetatuak, eta euskara, erabiltzen zutenean, oso egoera eta eremu murriztuetan erabiltzen zuten (egoera informal batzuetan, eta ahoz bakarrik).
- Euskara, ordea, Lasarte-Orian biziberritzen ere urte-tarte horretan hasi zen. Biziberritzearen inflexio-puntua Landaberri ikastolaren sorreran ezar dezakegu; bai euskararentzat eremu bat (irakaskuntza) irabazten hasi zelako, bai hiztun osatuak (alfabetatuak) sortzen hasi zelako ere. Geroztik, ekimen eta urrats (publiko zein pribatu) asko eta onak izan dira. Horrez gain, gaztelaniarekin batera euskara ere hizkuntza ofizial bihurtu izana (1978) eta horrek ondorioztatutako guztia izan da eragile nagusia.
- Galerako eta berreskurapeneko prozesu horien ondorioz, askoz hobea da gaur egun euskarak Lasarte-Orian duen osasun-maila 1975ean zuena baino, bai hiztun gehiago dituelako, bai eremu gehiagotan erabiltzen delako ere (familia euskaldunetan transmititzen da euskara belaunez belaun, irakaskuntza euskaraz egiten dute haur eta gaztetxo gehienek, horiek ere aisiako ekintza gehienak euskaraz dituzte, bada euskarazko komunikabiderik Lasarte-Orian...).

Gaur egungo egoera

- Hala ere, oraindik oso handia da erdaldun elebakarren kopurua zein ehunekoa. Horrek, noski, galga handia jartzen dio funtzioak berreskuratzerari; hau da, euskaraz arituko diren eremuak eta hiztun-taldeak bideratzeari.
- Erabiltzeko eremuei dagokienez ere, gaztelaniaren erabilera nagusi da ia eremu guztietan:

Familia:	Etxe gehienetan, gaztelania erabiltzen da. Euskararen erabilera %25 ingurukoa da.
Lagunartea:	Kalean gaztelania erabiltzen da gehien. Euskararen erabilera %20 ingurukoa da.
Aisia:	Aisialdian gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza. Haur eta gaztetxoentzako aisialdi antolatua izan daiteke salbuespena.
Zerbitzuak:	Zerbitzu gehienek gaztelaniaz egiten dute lan. Euskaraz zerbitzatu izateko aukerak murrizak dira oraindik, nahiz eta ugaritzen ari diren.
Irakaskuntza:	Irakaskuntza da euskara hizkuntza erabiliena duen eremua. Ikasketak, bederen, haur eta gaztetxo gehienek euskaraz egiten

	dituzte.
Komunikabideak:	Udalerriko informazioa jasotzen duten komunikabideen artean ere, euskarazkoak ugaritu badira ere, gaztelaniazkoak dira gehien kontsumitzen direnak (euskaldunen artean ere). Lasarte-Oriari buruzko informazioa jasotzen ez duten euskarazko komunikabideen kontsumoa oso murrizta da lasartearren artean.
Administrazioa:	Administrazioari dagokionez, Udalak euskararen egoera hobetzeko hainbat neurri hartu baditu ere, hango enplegatu eta zinegotziek gaztelaniaz lan egiten dute gehienetan, ahoz nahiz, batez ere, idatziz. Herritarrei harrera egitean (ahoz), ia beti herritarrek berak du aukeran zein hizkuntzatan egin nahi duen. Herritarrentzako zerbitzuak eskaintzean, berriz (ikastaroak, hitzaldiak...), gaztelaniaz dira asko (haurrei zuzenduak izan ezik). Idatzizko harremani dagokionez, berriz, gehienak bi hizkuntzetan jasotzen dituzte herritarrek.
Lana:	Lasartear gehienek lana gaztelaniaz egiten dute.

Etorkizunari begira:

- Euskara Lasarte-Orian hizkuntza normalizatua izan dadin, beraz, erabiltzeko eremuak eta hiztunak irabazten eta hobetzen jarraitu behar du.
- Erabilerako eremuei dagokionez, orain arte oinarritzakoak izan diren eremuetan euskararen erabilera gehitzeaz eta hobetzeaz gain (familia, irakaskuntza, aisia...), zorrotz erreparatu behar diegu unean-unean gizartea osatzen duten eremuei eta horien garrantziari, eta, horietan ere (lan-arloa, komunikabideak, merkataritza ...), euskara normal erabiltzera iritsi behar dugu.
- Hitzunei dagokionez, berriz, euskaldunak (elebidunak guztiak) gehiago gara, baina gehitze horrek ondorioak izan ditu hiztunen kalitatean, bai oro har, bai Lasarte-Oriako hizkerari dagokionez ere.
- Euskara galera-prozesuan egon den urteetan, euskaldunak familia bidez sortutakoak bakarrik izan dira. Belaunaldi horiek eguneroko bizimoduko eremu informal asko euskaraz (ahoz) bizi izan dituzte, eta, euskaraz alfabetatu gabeak izan badira ere (gaztelaniaz eskolatzera derrigorituak izan zirelako), oro har, euskaraz hitz egiteko gaitasun eta bizitasun komunikatibo aberatsa izan dute (tartean, euskara galdu eta kamustutako jatorrizko euskaldun dezente izan bada ere).
- Euskara Lasarte-Orian biziberritzen aritu den azken 50 urte horietan, ordea, aldatu egin dira euskaldun izatearen hizkuntzazko definizioa eta ezaugarriak.

Lehen buruan, euskara etxeko hizkuntza izatera iritsi da, oro har, familia euskaldunetan. Horren ondorioz, jatorrizko hiztunak berreskuratzen hasi dira, eta horietatik gehienak, euskaraz eskolatu direnez gero, euskaldun osoak izatera iritsi dira (aurreko belaunaldietan ia topatu ezin daitekeen hiztun-tipologia). Hain zuzen, euskarak, biziko bada, tipologia hori du (euskaldun osoa) ugaritasun nahikoarekin beharrezkoa duena; bizitzako edozein zeregin eta eremutan euskaraz normal aritzeko gaitasuna duten hiztunak, alegia.

Bigarrenik, euskara hiztunak irabazten hasi da. Ordea, hizkuntza normalizatuta ez dagoenean (eremu gehientsuenetan hizkuntza normal erabiltzen ez denean) irabazten badira hiztunak (ezinbesteko urratsa, bestalde, hizkuntza normalizatuz joateko), normala da hiztun horietako asko hiztun osoak ez izatea, edo jatorrizko euskaldun eskolatuek euskaraz aritzeko duten adinako gaitasunik ez izatea.

Horren guztiaren ondorioa da Lasarte-Orian 2016. urtean zeuden euskaldunak 1975ean zeuden euskaldunak baino gehiago izatea (%20 izatetik %45 izatera) eta bestelakoak izatea (%100 euskaldun zaharrak eta gehienbat alfabetatu gabeak izatetik, %42 bederen euskaldun berriak eta gehienbat alfabetatuak izatera).

- Beraz, euskarak hiztun gehiago eta hobeak lortu behar ditu Lasarte-Orian, eta, horretarako, hizkuntza ondorengoetarako sistemek ahalik eta ondoen funtzionatzeaz gain (familia bidezko transmisioak, irakaskuntza bidezko transmisioak eta helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak), euskararen erabilera zabaldu beharra dago gizarte osatzen duten eremuetan (aisia, komunikabideak, lana...).
- Haur eta gazteei zuzendutako hizkuntza-politikak desberdina izan behar du. Helburu izan behar du adin-tarte horien ahalik eta eremu gehienetan hizkuntza hegemonikoa izatea eta horretarako, jarduera guztien ohiko hizkuntza bihurtu behar da, besteak beste, arrazoi hauengatik:
 - **Ahal dutelako:** euskarazko ulermena unibertsalizatuta dago, beraz, jardueren ohiko hizkuntza bihur daiteke komunikagarritasuna ziurtatuta dagoelako.
 - **Komeni zaielako:** gaztelaniaz sozializatzeko bideak askoz gehiago eta indartsuak dituztenez, udalerrian gauzatzen diren jarduerak euskaraz sozializatzeko bide izatea erabakigarria izan daiteke, beraientzat hizkuntzak funtzionaltasuna izan dezan, eta ondorioz, euskarazko gaitasun erlatiboa hobe dezaten.
- Horrek guztiak oraindik ere zentzu gehiago hartuko du seguruenik, oraindik ongi ulertzeko gai ez garen, baina hizkuntza-komunitatearen biziberritzean eragina izaten ari diren globalizazioa, digitalizazioa eta immigrazio berria bezalako fenomenoak gertatzen ari direnean.